

Bakerako Hezkuntza: bizikidetza sustatzeko tresna



Ikasle Kaiera

Egilea : Luixa Reizabal
Arruabarrena



AURKIBIDEA

HITZAURREA

1. “BIZIKIDETZARAKO HEZKUNTZA” IKASGAIA
 - 1.1. Ikasgaiari eta haren antolaketari buruzko informazioa.
 - 1.2. Ikasgaiaren helburu orokorra.
 - 1.3. Lantzen diren gaitasunak.
 - 1.4. Gaitegia.
 - 1.5. Lehen zatian erabiliko den irakaskuntza-metodologia.

2. ARAZOETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA
 - 2.1. Arazoaren planteamendua.
 - 2.2. Arazoetan oinarritutako ikaskuntza (AOI) aplikatuko den ikasgaiaren atalak.
 - 2.3. Arazoarekin landuko diren gaitasunak eta espero diren emaitzak.
 - 2.3.1. Arazoarekin landuko diren gaitasunak.
 - 2.3.2. Ikaskuntzaren emaitzak.
 - 2.4. Arazoa ebazteko jarraitu beharreko ibilbidea eta jarduerak.
 - 2.4.1. Ikasgaiaren eta AOI metodologiaren aurkezpena.
 - 2.4.2. Abiapuntua: arazoaren aurkezpena.
 - 2.4.3. Bigarren jarduera: bizikidetzaren definizioa eta haren eduki eta balio pedagogikoak.
 - 2.4.4. Hirugarren jarduera: bizikidetza oztopatzen duten egungo hezkuntza-sistemaren alderdiak.
 - 2.4.5. Laugarren jarduera: Bakerako Hezkuntzaren (BH) kontzeptuzko oinarriak.
 - 2.4.6. Bosgarren jarduera: BHren helburuak, balioak eta edukiak, hezkuntza-lerroak eta agenteak.
 - 2.4.7. Seigarren jarduera: eskola egitura BHn.
 - 2.4.8. Zazpigarren jarduera: BH prozesua aplikatzeko moduak.
 - 2.4.9. Zortzigarren jarduera: txosten teknikoaren eta haren aurkezpen publikoaren prestaketa.
 - 2.4.10. Bederatzigarren jarduera: txosten teknikoaren aurkezpen publikoa.

2.5. Inplementazio-kronograma.

2.6. Arazoa ebazteko oinarrizko bibliografia.

3. EBALUAZIOA

3.1. Hasierako ebaluazioa.

3.2. Jarraipena.

3.3. Kalifikazioa.

3.3.1. Paper-zorroa.

3.3.2. Behaketa.

HITZAURREA

Azken urteotan gero eta gehiago dira Irakaskuntza Metodologia Berrien beharra aldarrikatzen duten unibertsitate-irakasleak. Metodologia horien artean, *Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza* (AOI) delakoa dugu. Metodologia hori 1960-1970 hamarkadetan sortu zen Kanadako McMaster Unibertsitatearen Medikuntza-fakultatean eta geroztik asko izan dira AOI goi mailako irakaskuntzan aplikatu duten erakundeak.

EHUn ere badira metodologia hori erabiltzen hasi diren irakasleak. Horren adierazle esku artean duzun gidaliburua, zeinaren helburua den aztertzea nola aplikatuko den metodologia Euskal Herriko Unibertsitateetan berriki ezarri den Kreditu Europarrean (ECTS). Hain zuzen ere, psikologiako graduan hautazkoa den “Bizikidetzarako Hezkuntza” ikasgaiaren.

Lau ataletan banatu da esku artean duzun gidaliburua. Lehenik eta behin, “Bizikidetzarako Hezkuntza” ikasgaiaren nondik norako nagusiak aztertuko dira. Bigarren atalean, berriz, AOI metodologiaren oinarri den arazoa azalduko da. Azkenik, ebaluazioa izango da hirugarren atalean jorratuko den gaia.

1. “BIZIKIDETZARAKO HEZKUNTZA” IKASGAIA

Atal honetan “Bizikidetzarako Hezkuntza” ikasgaiaren nondik norako nagusiak azalduko dira. Hain zuzen ere, ikasgaiari eta haren antolaketari buruzko informazioa, helburua, bertan lantzen diren gaitasunak eta gaitegia. Horien ostean, ikasgaiaren lehen zatian erabiliko den irakaskuntza-metodologiaren berri emango da.

1.1. IKASGAIARI ETA HAREN ANTOLAKETARI BURUZKO INFORMAZIOA

“Bizikidetzarako Hezkuntza” psikologiako graduan eskaintzen den *Hezkuntzaren Psikologia* minorrean kokatzen den hautazko ikasgaia da. 4,5 ECTS ditu ikasgaiak eta bi zatitan banatuta dago. Lehenengoari 2,25 ECTS dagozkio, hau da, 22,5 eskola-ordu eta 33,75 ordu ez-presentzial. Bertan Bizikidetza eta Bakerako Hezkuntza lantzen dira eta Luixa Reizabal irakaslea da haren arduraduna. Gida honek ikasgaiaren helburu nagusiak, bertan lantzen diren gaitasunak eta gaitegia aurkeztu ostean, lehen zatiari buruzko informazioa jasotzen du.

1.2. IKASGAIAREN HELBURU OROKORRA

Bakerako Hezkuntzaren eta Gatazken Ebazpenaren nondik norako teoriko zein praktikoak ezagutzea eta haiek aplikatzeko gaitasunak eskuratzea dira “Bizikidetzarako Hezkuntza” ikasgaiaren helburu nagusiak.

1.3. LANTZEN DIREN GAITASUNAK

Honako hauek dira “Bizikidetzarako Hezkuntza” ikasgaien lantzen diren gaitasunak:

- IG01 Bizikidetzarako hezkuntzaren oinarri teorikoak ezagutzea.
- IG02 Bake-hezkuntzak (BH) eta Gatazken Ebazpenak (GE) eskolan esku hartzeko esparru gisa duten garrantzia ezagutzea.
- IG03 BHren eta GERen helburu eta lerro orokorrak ezagutzea, baita horietan parte hartzen duten agenteak eta eskolako testuinguruan dituzten oinarri psikopedagogikoak ere.
- IG04 Bizikidetzari buruzko esku hartzeen eskaerak identifikatzeko gai izatea, eskolako testuinguruan.
- IG05 Bizikidetza ebaluatzeko tresnak erabiltzeko gai izatea, eskolako testuinguruan.
- IG06 Esku hartzeko estrategiak diseinatzeko, aplikatzeko eta ebaluatzeko gai izatea, eskolako bizikidetzarako gaitasunak eskuratze aldera.
- IG07 Lanbide anitzeko taldeetan lan egiteko gai izatea.
- IG08 Ahozko nahiz idatzizko txosten teknikoak egiteko gai izatea.
- IG09 Psikologoak eskolaren arloan dituen funtzioak eta ardura etikoak ezagutzea.
- IG10 Bizikidetzarako hezkuntzari buruzko dokumentazio-iturriak erabiltzeko gai izatea, eta informazioa eskuratzeko behar diren estrategiak menderatzen direla erakustea.

“Bizikidetzarako Hezkuntza” ikasgia Hezkuntzaren Psikologiari buruzko minorrean kokatzen denez, hona hemen minor horretan lantzen diren gaitasunak:

HPM01. Hezkuntza-psikologia familiako nahiz eskolako testuinguruetan, eta bizi-zikloko garapen psikologikoaren sustapenean aplikatzeko oinarriak ezagutzea, testuinguru formal eta ez-formaletan erabiltzeko, honako alderdi hauetan: sozio-emoziozkoan, bizikidetzakoan, moralean eta sexualean.

HPM02. Esku hartze psikologikoaren eskaera identifikatzeko gai izatea, hezkuntzako testuinguru formal eta ez-formaletan.

HPM03. Ebaluatzeko tresnak modu egokian erabiltzeko gai izatea, hezkuntzako testuinguru formal eta ez-formaletan.

HPM04. Familiaren eta eskolaren testuinguruak eta bizi-zikloko garapen psikologikoaren sustapena hobetzeko esku-hartze estrategiak diseinatzeko, aplikatzeko

eta ebaluatzeko gai izatea, hezkuntzako testuinguru formal eta ez-formaletan, alderdi hauetan: sozio-emoziozkoan, bizikidetzakoan, moralean eta sexualean.

HPM05. Lanbide anitzeko taldeetan lan egiteko gai izatea.

HPM06. Ahozko zein idatzizko txosten teknikoak egiteko gai izatea.

HPM07. Hezkuntza-psikologoak aplikazio- eremuetan dituen funtzio eta erantzukizun etikoak ezagutzea.

HPM08. Psikologiari buruzko dokumentazio-iturriak erabiltzeko gai izatea, eta informazioa eskuratzeko behar diren estrategiak menderatzen direla erakustea.

1.4. GAITEGIA

Gaitegiari dagokionez, hona hemen ikasgaien jorratuko diren gaiak:

I ATALA: BIZIKIDETZA

1. Sarrera: bizikidetzarako hezkuntza.
2. Bizikidetza oztopatzen duten egungo hezkuntza-sistemaren alderdiak.

II ATALA: BAKERAKO HEZKUNTZA BIZIKIDETZA SUSTATZEKO TRESNA GISA

3. Bakerako Hezkuntzaren oinarri teorikoak.
4. Bakerako Hezkuntza praktikan.

III ATALA: GATAZKEN EBAZPENA

5. Gatazken ebazpenean hezteko esku-hartze programak.
6. Berdinkideen arteko bitartekaritza.
7. Ikasgelan bizikidetza maneiatzeko estrategiak.
8. Diziplina bizikidetza sustatzeko tresna gisa.

1.5. LEHEN ZATIAN ERABILIKO DEN IRAKASKUNTZA-METODOLOGIA

Aipatu bezala, ikasgaia bi zatitan antolatuta dago eta hemendik aurrera lehen zatiaren nondik norakoak azalduko dira. Irakaskuntza metodologiari dagokionez, *Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza* erabiliko da. Hurrengo atalean metodologia horren berri emango da.

2. ARAZOETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA

Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza (AOI) izango da lehen zatiko irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren oinarri izango den irakaskuntza metodologia. Horretan arazo bat aurkeztuko zaie ikasleei taldean ebatzi dezaten. Hirugarren atal honetan metodologia horren berri emango da. Lehenik eta behin, ikaskuntza prozesuaren oinarri izango den arazoaren planteamendua egingo da. Gero, arazoarekin landuko diren ikasgaiaren atalak aipatuko dira. Ondoren, arazoarekin landuko diren gaitasunak eta espero diren emaitzak, arazoa ebazteko jorratu beharreko ibilbidea eta jarduerak, inplementazio-kronograma eta arazoa ebazteko oinarrizko bibliografia jasoko dira.

2.1. ARAZOAREN PLANTEAMENDUA

“Bakerako Hezkuntza: bizikidetzan sustatzeko tresna”

Gure gizartean eta, bereziki, gazteen artean egunero gertatzen diren bizikidetza-arazoak ikusirik, Eusko Jaurlaritzak -Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Elkarbizitza sailaren inizatibaz- erabaki du, besteak beste, Hezkuntza Sistema sakonki aztertu eta horretan aldaketa sakonak egitea gazteen artean elkarbizitza sustatzeko. Lan horren ardura Hezkuntza Sailari esleitu dio. Zuek psikologian graduatuak zarete eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailean ari zarete lanean aholkulari gisa. Gaur Hezkuntza Sailburua etorri zaizue eta, Jaurlaritzaren asmoa azaldu ostean, eskatu dizue, batetik, bizikidetza oztopa dezaketen egungo hezkuntza-sistemaren alderdiak aztertzeke. Bestetik, gazteen artean bizikidetza sustatzeko beharrezko liratekeen aldaketen inguruko proposamen bat prestatzeke. Zenbait argitalpenetan ikusi duzue azken urteotan Europa aldean *Bakerako Hezkuntza* delakoa erabiltzen hasi direla bizikidetza sustatzeko eta, ondorioz, sailburuak esleitutako lana hezkuntza mota horretan oinarritzea otu zaizue. Hala, EJKo kideei Bakerako Hezkuntzaren nondik norako nagusien berri ematea erabaki duzue, horretarako gaiari buruzko txosten bat idatzi eta haren hitzezko aurkezpena eginez.

2.2. ARAZOETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA APLIKATUKO DEN IKASGAIAREN ATALAK

AOI metodologia ikasgaiaren lehen bi atalak lantzeko erabiliko dugu. Horretarako 22'5 ordu beharko ditugu, hau da, ikasgaiaren %50. Hain zuzen ere, honako hauek dira atal horietan landuko diren edukiak:

I ATALA: BIZIKIDETZA

1. Sarrera: bizikidetzarako hezkuntza.
 - 1.1. Bizikidetza eta haren pedagogiaren eduki edo/eta balioak.

1.2. Bizikidetza oztopatzen duten aldagaiak.

2. Bizikidetza oztopatzen duten egungo hezkuntza-sistemaren alderdiak.
 - 2.1. Balioak eta edukiak.
 - 2.2. Hezteko modua.
 - 2.3. Ebaluazio-sistema.
 - 2.4. Ikaslearen eta irakaslearen ikusmoldea.
 - 2.5. Eskola-egitura.

II ATALA: BAKERAKO HEZKUNTZA BIZIKIDETZAN ESKU HARTZEKO TRESNA GISA

3. Bakerako Hezkuntzaren oinarri teorikoak.
 - 3.1. Kontzeptuzko oinarriak: bake positiboa eta gatazkaren ikusmolde positiboa.
 - 3.2. BHren helburuak, balioak, edukiak, hezkuntza-lerroak eta BH prozesuan parte har dezaketen agenteak.
4. Bakerako hezkuntza praktikan.
 - 4.1. Eskola-egitura Bakerako Hezkuntzan.
 - 4.2. Bakerako Hezkuntza prozesua aplikatzeko modua.

2.3. ARAZOAREKIN LANDUKO DIREN GAITASUNAK ETA ESPERO DIREN EMAITZAK

Atal honetan arestian azaldutako arazoarekin landu nahi diren gaitasunak agertzen dira, bai eta horiekin zerikusia duten irakaskuntzaren emaitzak ere.

2.3.1. ARAZOAREKIN LANDUKO DIREN GAITASUNAK

Lehenik eta behin, Ikasgaiari dagozkion gaitasun espezifikoak (IG) zerrendatuko dira.

- IG01 Bizikidetzarako hezkuntzaren oinarri teorikoak ezagutzea.
- IG02 Bake-hezkuntzak (BH) eta Gatazken Ebazpenak (GE) eskolan esku hartzeko esparru gisa duten garrantzia ezagutzea.
- IG03 BHren eta GEren helburu eta lerro orokorrak ezagutzea, baita horietan parte hartzen duten agenteak eta eskolako testuinguruan dituzten oinarri psikopedagogikoak ere.
- IG04 Bizikidetzari buruzko esku hartzeen eskaerak identifikatzeko gai izatea, eskolako testuinguruan.

- IG05 Esku hartzeko estrategiak diseinatzeko, aplikatzeko eta ebaluatzeko gai izatea, eskolako bizikidetzarako gaitasunak eskuratze aldera.
- IG06 Lanbide anitzeko taldeetan lan egiteko gai izatea.
- IG07 Ahozko nahiz idatzizko txosten teknikoak egiteko gai izatea.
- IG08 Bizikidetzarako hezkuntzari buruzko dokumentazio-iturriak erabiltzeko gai izatea, eta informazioa eskuratzeko behar diren estrategiak menderatzen direla erakustea.

Ikasgaiari dagozkion gaitasun espezifikoek gainera, hemen agertzen diren graduko gaitasunak (GG) landuko dira ere:

GG06 Psikologiarekin zerikusia duen informazioa bilatzeko, kudeatzeko, eguneratzeko, hautatzeko, aztertze eta laburtzeko gai izatea, espezializatutako informazio- eta dokumentazio-iturrietatik abiatuta.

GG07 Maila pertsonalean, profesionalean eta zientifikoan modu eraginkorrean erlazionatzea eta komunikatzea, eta banaka nahiz diziplina bakarreko zein anitzeko taldeetan lan egiteko gai izatea, ardurak hartuz eta jarduerak modu kritikoan baloraturaz.

GG09 Modu autonomoan ikasteko eta etengabeko ikaskuntzaren garrantzia baloratzeko gai izatea, lanbidearen mesederako diren gaitasunak eta ezagutzak eguneratzeko, eta ezagutza psikologikoari ekarpena egiteko.

2.3.2. IKASKUNTZAREN EMAITZAK

Aipatutako gaitasunak garatzeko, ezinbestekoa da ikasleek emaitza batzuk lortzea, gaitasunekin zerikusia dutenak. Ondoren, emaitza horiek zerrendatuko dira. Parentesien artean, emaitzekin zerikusia du(t)en gaitasuna(k) jasoko d(ir)a.

IE01 Bizikidetza zer den azaltzea (IG01).

IE02 Bizikidetzarako hezkuntzaren balio eta eduki pedagogikoak eta hura oztopatzen duten aldagai nagusiak deskribatzea (IG01).

IE03 Bizikidetza oztopatzen duten egungo hezkuntza-sistemaren alderdiak deskribatzea (IG01).

IE04 Bakerako Hezkuntzak bizikidetzan eskolan esku-hartzeko esparru gisa ulertzea (IG02).

IE05 Bake positiboa eta gatazkaren ikusmolde positiboa deskribatzea (IG03).

IE06 BHren helburuak eta horiek lortzeko hezkuntza-lerroak azaltzea (IG03).

IE07 BH prozesuan parte har dezaketen agenteak zein izan daitezkeen azaltzea (IG03).

IE08 BHn eskola-egiturak izan behar dituen ezaugarriak deskribatzea (IG03, IG06).

IE09 BH prozesua aplikatzeko modua azaltzea (IG03, IG06).

IE10 BHrekin zerikusia duen dokumentazio-iturriak erabiltzea (IG10 eta GG06).

IE11 BHrekin zerikusia duen informazioa ulertu eta maneiatzea (IG10 eta GG06).

IE12 BHri buruzko txosten teknikoak lantzea eta ahoz zein idatziz aurkeztea (IG07, IG08, GG06 eta GG07).

IE13 Ahoz zein idatziz komunikatzea (GG07).

IE14 Taldean lan egitea (GG07).

2.4. ARAZOA EBAZTEKO JARRAITU BEHARREKO IBILBIDEA ETA JARDUERAK

Orain arazoa ebazteko jarraitu beharreko ibilbidea eta horretan egin beharreko jarduerak deskribatuko dira, 2.1. taulan laburtzen direnak. Bertan jarduera bakoitza egiteko behar den denbora presentziala eta ez-presentziala zehazten da. Taularen osteko ataletan, berriz, jarduera guztiak deskribatuko dira.

JARDUERA	IZENBURUA	PRESENTZIALA		EZ- PRESENTZIALA	
		Denbora (min.)	Bai/ Ez	Den- bora (min.)	
J0	Ikasgaiaren eta AOI metodologiaren aurkezpena	60'	Bai	30'	
J1	Abiapuntua: arazoaren aurkezpena	60'	Ez		
J2	Bizikidetzaren definizioa haren eduki edo/eta balio pedagogikoak.	120'	Bai	120'	

J3	Bizikidetza oztopatzen duten egungo hezkuntza-sistemaren alderdiak.		70'	Bai	120'
J4	Bakerako Hezkuntzaren Kontzeptuzko oinarriak.		225'	Bai	120'
J5	BHren helburuak, balioak, edukiak, hezkuntza-lerroak eta agenteak.		180'	Bai	120'
J6	Eskola-egitura BHn		90'	Bai	60'
J7	BH prozesua aplikatzeko modua		180'	Ez	120'
J8	Txosten teknikoa eta haren aurkezpen publikoa prestatu.		180'	Bai	300'
J9	Aurkezpen publikoa egin.		175'	Ez	
	AOI metodologiaren ebaluazioa		10'	Ez	
AOIren arabera diseinatutako ordu-kopurua			1350' (22'5 ordu)		1020' (17 ordu)

2.1. Taula: arazoa ebazteko ibilbidea eta jarduerak.

2.4.1. IKASGAIAREN ETA ARAZOETAN OINARRITUTAKO
METODOLOGIAREN AURKEZPENA

JO: AURKEZPENA	
Presentziala: <input checked="" type="checkbox"/>	Denbora: 60'
Lan ez-presentziala: Bai	Denbora: 30'
Lana: Bakarka <input type="checkbox"/> / Bikoteka <input type="checkbox"/> / Taldean X	Jarduera mota: ikasgaiaren eta horretan erabiliko den irakaskuntza-metodologiaren aurkezpena. Talde-giroa sortzea.
Gaitasunak:	Helburua: ikasgaiaren eta horretan erabiliko den irakaskuntza-metodologiaren nondik norako nagusiak ezagutzea eta ikasleen arteko giro ona sortzea.
Ikaskuntzaren emaitzak:	
Behar den materiala: (1) Ikaslearen gidaliburua.	
Irakasleari entregatuko zaiona:	
OHARRA: IRAKURRI IKASLEAREN GIDA LEHEN SAIORA JOAN AURRETIK.	

JARDUERAN EGINGO DENA:

1.- Irakasgaiaren lehen zatiaren helburua, landuko diren gaitasunak eta gaitegiaz gainera, zati horretan erabiliko den irakaskuntza-metodologia (Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza) azalduko da.

2.- Bakerako hezkuntzaren eremuan erabili ohi den jarduera egingo da talde-giroa sortzeko.

2.4.2. ABIAPUNTUA: ARAZOAREN AURKEZPENA

1 JARDUERA	
Presentziala: <input checked="" type="checkbox"/>	Denbora: 60'
Lan ez-presentziala:	Denbora:
Lana: Bakarka <input type="checkbox"/> / Bikoteka <input type="checkbox"/> / Taldean <input checked="" type="checkbox"/>	Jarduera mota: arazoaren aurkezpena
Gaitasunak: GG07	Helburua: ikasgaiarekiko interesa piztea
Ikaskuntzaren emaitzak: gaia kontestualizatzeaz gainera, honako emaitza hauek espero dira: IE01, IE11 eta IE14.	
Behar den materiala: (1) Taldeak osatzeko fitxa. (2) Arazoa idatziz. (3) Papera eta boligrafoa.	
Irakasleari entregatuko zaiona: saioan aurkeztuko diren galderen erantzunak, hasierako ebaluaketa gisa erabiliko direnak.	

Arazoa aurkeztuko den jarduera honako urrats hauei jarraituz egingo dugu:

1.- Hiru pertsonako taldeak osatuko dira eta talde bakoitzak izen bat aukeratuko du. Arazoa ebazteko prozesu osoan mantenduko dira taldeak.

2.- Taldean honako galdera honi buruz hausnartu eta eztabaidatu (5'):

Beharrezkoa al da hezkuntza-sisteman aldaketak egitea haur eta gazteek elkarbizitzan ikasteko?

3.- Denen artean komentatu erantzunak.

4.- Arazoa aurkeztuko da (ikus 2.1. atala).

5.- Taldean galdera hauei erantzun:

Zer urrats eman beharko dituzue arazoa ebazteko?

Egun, zer gaitasun eta ezagutza duzue esleitu zaizuen eginbeharra egiteko baliagarri izan daite(z)keena(k)?

Zer beste gaitasun eta ezagutza behar duzue esleitu zaizuen ataza egin ahal izateko?.

6.- Galderen erantzunak txosten batean jasoko dituzte saioaren amaieran irakasleari entregatzeko

2.4.3. BIGARREN JARDUERA: BIZIKIDETZAREN DEFINIZIOA ETA HAREN EDUKI ETA BALIO PEDAGOGIKOAK

2 JARDUERA	
Presentziala: <input checked="" type="checkbox"/>	Denbora: 120'
Lan ez-presentziala: <input checked="" type="checkbox"/>	Denbora: 120'
Lana: Bakarka <input checked="" type="checkbox"/> / Bikoteka <input type="checkbox"/> / Taldean <input checked="" type="checkbox"/>	Jarduera mota: akrostikoa diseinatu; <i>Poster Session</i> delako bat antolatu; bideoa ikusi eta laburtu.
Gaitasunak: IG01, IG08, GG06 eta GG07	Helburua: bizikidetzaren inguruan hausnartzea; haren eduki eta balio pedagogikoak zehaztea; horiek akrostiko batean islatzea eta akrostikoa jendaurrean aurkeztu eta argudiatzeko gai izatea; bizikidetza oztopatzen duten aldagaiak ondorioztatzea.
Ikaskuntzaren emaitzak: IE01, IE02, IE10, IE11, IE12 eta IE14.	
Behar den materiala: (1) Ordenagailu kanoiduna. (2) Kartulinak. (3) Koloretako margoak. (4) Akrostikoak horman eransteko zela edo txintxetak.	
Irakasleari entregatuko zaiona: akrostikoa eta Jaresek bideoan esandakoaren laburpena.	

Bigarren jarduera honako urrats hauei jarraituz egingo dugu:

1.- Taldeei honako galdera hauek aurkeztu:

Zer balio eta edukitan oinarritu behar du bizikidetzak?

Zein dira bizikidetza oztopatzen duten aldagaiak?

2.- Taldean horiek erantzun eta lehenengoaren erantzunetan oinarrituz Akrostikoa egin.

3.- Kongresu zientifikoetan egin ohi diren *Poster Session* bat antolatuko da (60'). Horretan akrostikoen egileek aurkezle rola hartuko dute eta besteek, aldiz, posterren berri zehatza izatera hurbiltzen ziren kongresu-parte hartzaileena. Hala, akrostikoak gelako hormetan jarri eta aurkezleek "kongresu-parte hartzaileei" aukeratutako hitzak (balioak edo/eta edukiak) eta ondorioztatutako oztopoak argudiatu behar izango dituzte. "Kongresu-parte hartzaileek", aldiz, GALDERAK, KOMENTARIOAK ETA ANTZEKOAK EGIN BEHARKO DIZKIETE AURKEZLEEI. TALDE BAKOITZAK GUTXIENEZ GALDERA BAT PRESTATU BEHARKO DU ETA IRAKASLEAK ZORIZ AUKERATUKO DU GALDERA EGINGO DUEN TALDEA (60').

3.- ESKOLAZ KANPO EGITEKO EBALUAZIO-ARIKETA: Interneten ikusi Jares-ek bizikidetzaren pedagogiari buruz argitaratu zuen liburuaren aurkezpena (<http://tv.uvigo.es/video/52760>) eta bertan esandakoa laburtu, ARRETA BEREZIA JARRIZ BIZIKIDETZAREN OINARRI DIEN BALIO ETA EDUKI PEDAGOGIKOEI ETA HURA OZTOPATZEN DUTEN ALDAGAIEI (90' EZ PRESENTZIAL).

2.4.4. HIRUGARREN JARDUERA: BIZIKIDETZA OZTOPATZEN DUTEN EGUNGO HEZKUNTZA-SISTEMAREN ALDERDIAK

3 JARDUERA	
Presentziala: <input checked="" type="checkbox"/>	Denbora: 70'
Lan ez-presentziala: <input checked="" type="checkbox"/>	Denbora: 120'
Lana: Bakarka <input checked="" type="checkbox"/> / Bikoteka <input type="checkbox"/> / Taldean <input checked="" type="checkbox"/>	Jarduera mota: Buruhusgarria teknika (Ikaskuntza Kooperatiboa-IK)
Gaitasunak: IG01, IG04, IG06, IG07, IG08, GG06, GG07 eta GG09	Helburua: bizikidetza oztopatzen duten egungo hezkuntza-sistemaren alderdiak ezagutzea.
Ikaskuntzaren emaitzak: IE03, IE09, IE10, IE11, IE12 eta IE14.	
Behar den materiala: (1) Banatzeko materialak.	
Irakasleari entregatuko zaiona: materialari buruzko txosten orokorra, galderaren erantzuna ere jasotzen duena.	

Hirugarren jarduera honako urrats hauek jarraituz egingo dugu:

1.- Saiatu honako galdera eragile honi erantzuten:

Posible al da bizikidetzarako hezteko egungo hezkuntza-sisteman?

2.- Galderari behar bezala erantzun ahal izan izateko, buruhusgarriaren teknika erabiliko dugu. Hain zuzen ere, hezkuntza sistemaren alderdi bati buruzko informazioa banatuko diogu talde bakoitzari (alderdiak: 1.- Balioak eta edukiak; 2.- Hezteko modua+Ebaluazio-sistema 3.- Ikasleen ikusmoldea+eskola-egitura)

2.- Materialak banatu ostean, taldekide bakoitzak materialaren zati baten ardura hartu eta irakurri egingo du (10').

3.- Ondoren, gelan dauden beste taldeetan material zati berdina zuten ikaskideekin elkartuko dira ikasleak, zati horren aditu-taldea osatuz. Materialean jasotako informazioaz hausnartu, eztabaidatu eta haien ekarpenekin osatu egingo dute aditu-taldeek (20').

4.- Adituen taldeek lana amaitutakoan, hasierako ikastaldeak elkartuko dira eta ikasle bakoitzak adituen taldean landutakoa aurkeztuko die ikaskideei. Hala, materiala oso-

osorik aztertuko dute ikaskide guztien ekarpenekin eta, amaitzeko, galdera eragileari erantzungo diote (20').

5.- Azkenik, egindako lanaren inguruko txostena idatziko dute, seigarren jardueran prestatu beharko zuten txosten teknikoaren zati izango dena (ez presentzialak: 60').

2.4.5. LAUGARREN JARDUERA: BAKERAKO HEZKUNTZAREN
KONTZEPTUZKO OINARRIAK

4 JARDUERA	
Presentziala: <input checked="" type="checkbox"/>	Denbora: 225'
Lan ez-presentziala: Bai	Denbora: 120'
Lana: Bakarka <input type="checkbox"/> / Bikoteka <input type="checkbox"/> / Taldean <input checked="" type="checkbox"/>	Jarduera mota: Elkarrekin ikasten (Ikaskuntza Kooperatiboa)
Gaitasunak: IG02, IG06, IG07, GG06, GGO7 eta GG09.	Helburua: BHren kontzeptuzko oinarriak argi izatea.
Ikaskuntzaren emaitzak: IE04, IE05, IE10, IE11, IE12 eta IE14.	
Behar den materiala: (1) Ordenagailu kanoiduna. (2) Bakeari buruzko esaldiak.	
Irakasleari entregatuko zaiona: landutako materiala.	

Laugarren jarduera honako urrats hauei jarraituz egingo dugu:

1.- Honako galdera eragile honi erantzuten saiatu:

Nola susta daiteke bizikidetza hezkuntza-sisteman?

2.- Ondoren, taldeek haien erantzunak denen aurrean azaldu eta irakasleak arbelean jasoko ditu.

3.- Lehenengo galderari erantzun ostean, beste bi galdera hauei erantzun ditzaten (5'):

BHren arabera, gatazkarik edo/eta borrokarik eza gisa definitu behar al da bakea?

BHren arabera, kaltegarria al da gatazka bizikidetzarako?

4.- Bakerako Hezkuntzaren kontzeptuzko oinarriak aztertuko ditugu eta horretarako Ikaskuntza Kooperatiboan oinarritutako "Elkarrekin ikasten" (Johnson eta Jonhson, 1994) delako teknika erabiliko dugu. Lehenik eta behin, irakaskuntza tradizionalan

egiten den moduan, irakasleak gela osoari azalduko dizkio BHren kontzeptuzko oinarriak, hau da, bake positiboa eta gatazkaren ikusmolde positiboa. Aurkezpen teorikoa amaitutakoan, galdera eragileei erantzun eta BHren kontzeptuzko oinarriei buruzko txostena prestatzen hasiko dira taldeak. Lortu behar dutena zera da: eskolan aztertutakoari buruzko material bat osatzea. Material hori eskolan aztertutako edukien (Bakearen eta gatazkaren esanahia BHn) azalpenez (adibideekin, noski), haiek argi gera daitezen erabilgarri izan zitezkeen ariketez edo/eta jardueraz eta haien soluzioez osatuta egon beharko da. Txostena 8. jardueran prestatu beharreko txosten teknikoaren zati izango da.

2.4.6. BOSGARREN JARDUERA: BAKERAKO HEZKUNTZAREN HELBURUAK, BALIOAK ETA EDUKIAK, HEZKUNTZA-LERROAK ETA AGENTEAK.

5 JARDUERA	
Presentziala: <input checked="" type="checkbox"/>	Denbora: 180'
Lan ez-presentziala: <input checked="" type="checkbox"/>	Denbora: 120'
Lana: Bakarka <input type="checkbox"/> / Bikoteka <input type="checkbox"/> / Taldean <input checked="" type="checkbox"/>	Jarduera mota: Ikerketa Taldeak (IK).
Gaitasunak: IG03, IG07, IG09, GG06 eta GG07	Helburua: BHren helburuak, balioak eta edukiak, hezkuntza-lerroak eta agenteak deskribatzea.
Ikaskuntzaren emaitzak: IE06, IE07, IE08, IE10, IE11 eta IE12.	
Behar den materiala: (1) Materiala bilatzeko erreferentziak. (2) Interneten bilaketa bibliografikoa egiteko ordenagailuak.	
Irakasleari entregatuko zaiona: galdera guztien erantzunak jasoko dituen txostena.	

Bosgarren jarduera honako urrats hauek jarraituz egingo dugu:

1.- Honako galdera eragile hauek planteatu:

1. Bortizkeria fisikoa edo zuzena desagertzea al da Bakerako Hezkuntzaren helburu nagusia?
2. Zein lirateke BHk sustatzen dituen balioak eta edukiak?
3. Zer hezkuntza-lerro bereizi beharko lirateke bake positiboa sustatu ahal izateko.
4. Zein izan daitezke BH prozesuan parte hartzen duten agenteak?

2.-Taldeen artean galderak zozketatu eta talde bakoitzari galdera bat esleitu.

3.- Orain galdera bera duten taldeak elkartu eta egokitu zaien galderari erantzuteko behar duten informazioa aztertuko dute. Horrez gainera, informazioa lortzeko prozedurak (adibidez, etxean, liburutegian edo Interneten bilatu) aukeratu, lana antolatu eta ardurak banatuko dituzte.

3.- Aukeratutako prozedurak erabiliz, informazioa bilatuko dute taldeek.

4.- Ondoren, lortutako informazioa aztertu, laburtu, landu, horren inguruan hausnartu, esleitu zaizuen galderari erantzun eta guztia txukun antolatuko duzue taldeek ikaskideei aurkezteko.

5.- Hori egin ostean, euskarri audiobisual xume bat prestatuko duzue egindako lana ikaskideei aurkezteko.

6.- Ikaskideei egindako lana aurkeztu. Bitartean, entzuleek apunteak hartuko dituzte.

7.- Azkenik, taldeek galdera guztien erantzunak jasoko dituen txostena idatziko dute eskolaz kanpoko orduetan.

2.4.7. SEIGARREN JARDUERA: ESKOLA-EGITURA BAKERAKO HEZKUNTZAN

6 JARDUERA	
Presentziala: <input checked="" type="checkbox"/>	Denbora: 90'
Lan ez-presentziala: Bai	Denbora: 60'
Lana: Bakarka <input type="checkbox"/> / Bikoteka <input type="checkbox"/> / Taldean <input checked="" type="checkbox"/>	Jarduera mota: gela-batzarra
Gaitasunak: IG04, IG05, GG07	Helburua: BHn eskola-egiturak nolakoa izan behar duen azaltzea.
Ikaskuntzaren emaitzak: IE08	
Behar den materiala: (1) Mahaiak mugitzeko moduan dituen gela. (2) Arbela.	
Irakasleari entregatuko zaiona: Txostena.	

Seigarren jarduera honako urrats hauei jarraituz egingo dugu:

1.- Lehenik eta behin, honako galdera eragile hau planteatuko dugu:

“Nola egon behar da antolatuta Bakerako Hezkuntza sustatu nahi duen eskolak?”

2.- Galderari erantzun ahal izan diezaioten, irakasleak azalduko ditugu gelak eta zentroak demokratizatzeko erabili ohi diren teknikak eta horietako bat gauzatuko dugu: gela-batzarra. Hain zuzen ere, Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza buruzko gela-batzarra.

3.- Eskolan aztertutako teoriari buruzko laburpena, galdera eragilearen erantzuna, gela-batzarrean izandako esperientziaren balorazioa, kritika eta antzekoak jasoko dituen txostena egingo da taldean (30').

2.4.8. ZAZPIGARREN JARDUERA: BAKERAKO HEZKUNTZA
PROZESUA APLIKATZEKO MODUAK

7 JARDUERA	
Presentziala: <input checked="" type="checkbox"/>	Denbora: 180'
Lan ez-presentziala: Bai	Denbora: 120'
Lana: Bakarka <input type="checkbox"/> / Bikoteka <input type="checkbox"/> / Taldean <input checked="" type="checkbox"/>	Jarduera mota: elkarrekin ikasten (IK) eta BHn erabiltzen diren jarduerak egiten.
Gaitasunak: IG04, IG05, IG06, IG07, IG08, GG06 eta GG09	Helburua: BH prozesua aplikatzeko modua nolakoa den jakitea.
Ikaskuntzaren emaitzak: IE09	
Behar den materiala: (1) Jarduerak/ariketak egiteko materialak (esaterako, zinta horia, folioak, margoak, ...). (2) Metodo sozioafektiboan oinarritutako jarduera motei buruzko	
Irakasleari entregatuko zaiona: Txostena.	

Zazpigarren jarduera honako urrats hauei jarraituz egingo dugu:

1.- Taldeei honako galdera hau planteatuko zaie:

Nola gauzatu behar da bakerako hezteko prozesua?

2.- *Elkarrekin ikasten* (IK) teknikaren bitartez, irakasleak gaiaren inguruko 20'ko eskola emango die. Horretan irakaskuntza teknika aktiboak erabiliko dira. Ikasleek apunteak hartuko dituzte gero klasean azaldutakoari buruzko materiala prestatzeko.

3.- Eskolan esandakoaren adibide gisa “*zinta horia*” delako simulazio-ariketa (Crump, 1983 *in* Jares, 2005) egitea proposatuko zaie. Horretan ikasleek astebetez eraman beharko dute zinta hori bat besoan jarrita eta koadernotxo batean apuntatuko dituzte horrek beraiengan zein besteengan sortzen dituen erantzunak.

3.- Eskolan metodo sozioafektiboan oinarritutako zenbait jarduera egingo dira (150').

4.- Ondoren, ikasleek jardueran zehar egindakoari buruzko materiala landu beharko dute, galdera eragileari erantzuten saiatuz.

4.- Eskolaz kanpo (90' bat minututan), metodo sozioafektiboan oinarritutako jarduera motei buruzko materiala (Moodle plataforman eskuragarri) irakurri, laburtu eta beraiek landutako materialean txertatu beharko dute. Halaber, klasean egindako jarduerari buruzko balorazioa sartu beharko dute. *Zinta horia* jarduerari dagokionez, honako galdera hauei erantzun beharko diete:

- Nola sentitu zineten?
- Zer erreakzio izan ziren?
- Zerk motibatu zituen erreakzio horiek?
- Zer gertatuko litzateke beste arraza batekoak bazinaten?
- Zer gertatzen da norbait ezberdina denean?
- Nola senti daitezke besteak bezalakoak ez diren pertsonak?

2.4.9. ZORTZIGARREN JARDUERA: TXOSTEN TEKNIKOAREN ETA HAREN AURKEZPEN PUBLIKOAREN PRESTAKETA

8 JARDUERA	
Presentziala: <input checked="" type="checkbox"/>	Denbora: 180'
Lan ez-presentziala: <input checked="" type="checkbox"/>	Denbora: 300'
Lana: Bakarka <input type="checkbox"/> / Bikoteka <input type="checkbox"/> / Taldean <input checked="" type="checkbox"/>	Jarduera mota: Txostena eta haren aurkezpena idatziz eta ahoz prestatzea.
Gaitasunak: IG01, IG02, IG03, IG06, IG07, IG08, IG10, GG06, GGO7 eta GG09	Helburua: txosten teknikoak prestatzeko eta ahoz zein idatziz aurkezteko gai izatea.
Ikaskuntzaren emaitzak: IE01- IE14 (hau da, planteatutako guztiak).	
Behar den materiala: (1) Talde bakoitzeko ordenagailu bana.	
Irakasleari entregatuko zaiona: txosten teknikoa.	

Zortzigarren jarduera honako urrats hauei jarraituz egingo dugu:

- 1.- Taldean orain arte jorratutako informazio guztia jasoko duen txosten teknikoaren zirriborroa prestatu. Hain zuzen ere: aurkibidea eta atal bakoitzean sartuko dituzten edukiak.
- 2.- Lan hori egin eta gero, irakasleari erakutsi eta hark iradokitako hobekuntzak eta antzekoak kontuan izanik, txostena erredaktatzen hasiko dira.
- 3.- Txostena amaitutakoan, txostenaren aurkezpen publikoan erabiliko duten euskarri audiobisuala prestatuko dute.

2.4.10. BEDERATZIGARREN JARDUERA: TXOSTEN TEKNIKOAREN
AURKEZPEN PUBLIKOA

9 JARDUERA	
Presentziala: <input checked="" type="checkbox"/>	Denbora: 175'
Lan ez-presentziala: Ez	Denbora:
Lana: Bakarka <input type="checkbox"/> / Bikoteka <input type="checkbox"/> / Taldean <input checked="" type="checkbox"/>	Jarduera mota: rol joko baten bitartez aurkezpen publikoa egitea.
Gaitasunak: guztiak, baina bereziki IG06, IG07, GG07 eta GG09.	Helburua: txosten teknikoak jendaurrean aurkezteko gai izatea.
Ikaskuntza emaitza: IE01-IE14	
Behar den materiala: (1) Aurkezpeni buruzko ebaluazio-fitxak. (2) Ordenagailu kanoiduna.	
Irakasleari entregatuko zaiona: beste taldeen aurkezpeni buruzko ebaluazio-fitxak eta aurkezpenean erabilitako euskarri audiobisualaren kopia.	

Bederatzigarren jarduera egiteko honako urrats hauei jarraituko diegu:

- 1.- Taldeek aurkezpenak egingo dituzte. Talde bakoitzak egindako lana aurkezteko 10' izango ditu. **ETA EZIN IZANGO DUTE "TXULETARIK" ERABILI.**
- 2.- Aurkezpen bakoitzaren ostean, beste taldeek galderak egingo dizkiete txostenaren aurkezpena egin duen taldeari. **DERRIGORREZKOA IZANGO DA GALDERAK EGITEA.**
- 3.- Azkenik, taldeek egindako aurkezpenari buruzko ebaluazio-fitxa beteko dute, irakasleak banatuko diena.

2.5. INPLEMENTAZIO-KRONOGRAMA

2.2. Taulako inplementazio-kronograman ikus daiteke aurreko atalean azaldutako jarduerak egiteko plangintza (J= Jarduera; F= jarduera amaitzeko falta den minutu kopurua). Orduen banaketa irakasleari 2013-2014 ordutegian esleitutako saioen arabera egin da.

ASTEAK	CM	PA	TA	PO	S
1. ASTEA	J0 (60') J1 (60')	J2 (60') F60')			
2. ASTEA	J2 (60') J3(70') (F=10')	J3 (10') J4 (45') (F180')			
3. ASTEA	J4 (120') (F60')		J4 (60')		
4. ASTEA	J5 (120') (F60')			J5 (60')	
5. ASTEA	J6 (90') J7 (90') (F=90)				
6. ASTEA	J7 (90') J8 (30') (F=150)			J8 (60') (F=90')	
7. ASTEA			J8 (60') (F=30)		
8. ASTEA				J8 (30') J9 (30')	
9. ASTEA					J9 (60') (F=85)
10. ASTEA	J9 (60') (F=30')		J9 (30')		

2.2. Taula: inplementazio-kronograma.

2.6. ARAZOA EBAZTEKO OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

CEIP Los Pinos de Bicorp (Valencia) (2009), 'El respeto es la base de la convivencia'. Bideoa. Iturria: <http://www.youtube.com/watch?v=0VJFxQHvyfQ>. Premio 2009 de la Comunitat Valenciana.

Jares, X. (2005): *Educación para la paz. Su teoría y su práctica*, Popular, Madril.

Jares, X. (2008): *Pedagogía de la convivencia*, Bartzelona: Grao. Liburuaren aurkezpena, hemen aurki daiteke: <http://tv.uvigo.es/video/52760>.

Lederach, J.P. (1984): *Educación para la paz*. Bartzelona: Fontamara.

Reizabal, L. (1995): *Bakearen Dimentsio Kulturala Euskal Herriko Uste Sistema eta Pertzepzioetan*. Bilbo: EHU.

Reizabal L., (2007): *Bakearen eta gerraren inguruko ikusmoldeen garapena*. In L. Reizabal (arg.), "Gizarte-ezagutzaren garapena nerabegarora arte", 349-367, Bilbo: UEU.

Reizabal L., (2007): *Esku-hartzea gizarte-ezagutzaren garapenean*. In L. Reizabal (arg.), "Gizarte-ezagutzaren garapena nerabegarora arte", 459-464, Bilbo: UEU.

Reizabal, L. eta Acha, J. (2012): *Hezkuntza sozioemozionala eta ikaskuntza zailtasunak: hezkuntza-testuinguruetan aplikatzeko esku-hartzea*, Bilbo: UEU.

3. EBALUAZIOA

Arazoan landu diren gaitasunen eta ikaskuntzaren emaitzen ebaluazioa honako hiru urrats hauetan egingo da: hasierako ebaluazioa, jarraipena eta kalifikazioa. Orain urrats horiek nola emango diren azalduko da.

3.1. HASIERAKO EBALUAZIOA

Ikasleek ikasgaiaren inguruan dakitenaren berri izateko, hasierako ebaluazioa erabiliko da. Hasierako ebaluazio hori 1. jardueran (J1) egingo diren hiru galderari emandako erantzunaren bitartez egingo da. Hain zuzen ere:

Egun, zer gaitasun eta ezagutza duzue esleitu zaizuen eginbeharra egiteko baliagarri izan daite(z)keena(k)?

Zer beste gaitasun eta ezagutza behar duzue esleitu zaizuen ataza egin ahal izateko?.

Zer urrats eman beharko zenukete/zer ataza egin beharko zenukete esleitu zaizuen eginbeharra egiteko?

Galdera horien erantzunen bitartez jakingo dugu zein diren ikasleek arazoa bideratzeko dituzten baliabideak eta zer beste gaitasun eta ezagutza beharko luketen. Taldeek galderen erantzunak jasotzen dituzten txostenak arazoa aurkezten den saioaren amaieran emango dizkiote irakasleari.

3.2. JARRAIPENA

AOI prozesuaren jarraipena egiteko, berriz, zenbait estrategia erabiliko dira, 3.1. taulan jasotzen direnak.

JARДУ-ERA	EBALUATUKO DEN ALDERDIA	EGINGO DEN JARRAIPENA	EBALUA-TZAILEA
J2	Akrostikoaren diseinua eta aurkezpena	<i>Poster Session</i> delakoan izango dugun feedbackaren bitartez. Aurkezpenaren eta argudiatzeko moduaren inguruan irakasleak egingo duen behaketa.	Irakaslea
J2	Jaresek bideoan esandakoaren laburpena	Irakasleak laburpena zuzentzen duenean izango duten feedbacka, tutoretza-orduetan egingo dena.	Irakaslea
J3	Buruhausgarria egiteko prozesua	Jarduera egiten ari diren bitartean, irakaslea bertan egongo da haien zalantzak eta antzekoak argitzen, aztertutakoa ulertu eta barneratu duten galderak egiten eta lanaren jarraipena egiten.	Irakaslea
J4	Bortizkeria moten, bake positiboaren eta gatazkaren ikusmolde positiboaren ulermena	Aurkeztutakoa ondo ulertu den jakiteko, irakasleak ariketatxo batzuk jarriko ditu aurkezpenean zehar. Esaterako, eskatuko die bortizkeria mota bakoitzaren adibide bana jartzeko; bakearekin zerikusia duen esaldiak banatuko dizkie taldeei zer bake mota islatzen duen azal dezaten. Jardueran egingo den materialaren eta haren edukia behar bezala ulertu den jakiteko jarraipena ikasleak gaiari buruzko txostena prestatzen ari diren bitartean egingo da.	Irakaslea
J5	Egindako lanaren aurkezpena	Taldeek irakasleari gelan egingo dizkioten aurkezpenetan gertatuko den feedbackaren bitartez.	Irakaslea

J6	Gelako batzarra	Taldeek gelako batzarrean duten parte-hartzearen bitartez.	Irakaslea
J7	BH prozesua aplikatzeko moduak	Aurkeztutakoa ondo ulertu den jakiteko, irakasleak ariketatxo batzuk jarriko ditu aurkezpenean zehar. Jardueran egingo den materialaren eta haren edukia behar bezala ulertu den jakiteko jarraipena ikasleak gaiari buruzko txostena prestatzen ari diren bitartean egingo da.	Irakaslea
J8	Txosten teknikoaren prestaketa	Taldeek irakasleari aurkeztuko diote egindakoa eta hark feedbacka eskainiko die.	Irakaslea
J8	Euskarri audiobisualaren prestaketa	Irakaslea hura prestatzeko saioan egongo da egiten duten lanaren jarraipena egiten.	Irakaslea
	Aurkezpen publikoa	Saioan bertan izango den feedbackaren bitartez egingo da.	Irakaslea eta ikasleak

3.1. Taula. AOI prozesuaren jarraipena.

3.3. KALIFIKAZIOA

AOI prozesuan parte hartu duten ikasleen kalifikazioa bi ebaluazio-motaren arabera izango da. Batetik, ikasle-taldeek egindako lanak bilduko dituen *Paper-zorroa* erabiliko da eta, bestetik, behaketa. Ebaluazio-mota horiek aukeratu dira bat datozelako Bakerako Hezkuntzaren printzipioekin.

Ikasle ez presentzialen ezagutzak eta gaitasunak, berriz, azterketa baten bitartez ebaluatuko dira. Azterketak 10 galdera labur izango ditu eta gainditu ahal izateko horien erdiari gutxienez erantzun beharko zaio ondo.

Hurrengo atalean arestian aipatutako ebaluaketa-mote inguruko nondik norako nagusiak azalduko dira.

3.3.1. PAPER-ZORROA

Paper-zorro bidezko ebaluaketa jarraitua erabiliko da. Atal honetan aztertuko dugu zer lanez osatuko den paper-zorroa eta zein izango diren lan horiek ebaluatzeko irizpideak.

3.3.1.1. PAPER-ZORROAN JASOKO DIREN LANAK

AOIn oinarritutako saioetan ikasleek egindako jardueretan ikasleek garatutako ariketak/hausnarketak/txostenak jasoko dira paper-zorroan. Horiei “ebaluazio-ariketak” deituko diegu eta bakoitzetik puntuazio bat lortu ahal izango da (ikus 3.2. taula). Denera 4,7 puntu. Ikasgaiaren lehen zatitik lor daitezkeen 5 puntura iristeko falta dena, irakasleak egindako behaketatik eratorriko da.

EBALUAZIO-ARIKETAK	JARDUERA	DESKRIPZIOA	EBALUATZAILEA	PUNTUAZIOA
1 Ariketa	J2	Taldean egindako akrostikoa eta haren argudiatzea.	Irakaslea	0,2
2 Ariketa	J2	Jaresek bideoan esandakoaren laburpena (bakarka eskolaz kanpo egindakoa).	Irakaslea	0,2
3 Ariketa	J3	Bizikidetza oztopatzen duten egungo hezkuntza-sistemaren alderdiei buruzko materialaz egindako txostena.	Irakaslea	0,4
4 Ariketa	J4	BHren kontzeptuzko oinarrien inguruan taldean landutako materiala.	Irakaslea	0,4
5 Ariketa	J5	Galdera eragileen erantzunak jasoko dituen txostena.	Irakaslea	0,5
6 ariketa	J6	Jardueraren amaieran egindako txostena.	Irakaslea	0,2
7 ariketa	J7	BH prozesua aplikatzeko moduari buruzko txostena.	Irakaslea	0,4
8 Ariketa	J8	Txosten teknikoaren aurkezpena idatziz.	Irakaslea	1
9 Ariketa	J8	Ahozko aurkezpen publikoan erabiliko duten euskarri audiobisualaren kopia.	Irakaslea	0,4
10 Ariketa	J9	Aurkezpen publikoaren ebaluaketa (beste taldeena eta irakaslearena).	Irakaslea eta ikaskideak	1
DENERA				4,7

3.2. Taula. Ebaluazio-ariketak eta haien balioa.

3.3.1.2. PAPER-ZORROAN JASOKO DIREN ARIKETAK KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Kontuan izanik AOI prozesua osatzen duten ariketetatik 2.3.2. atalean azaldu diren ikaskuntza-emaizak espero direla, ikaskuntza-emaizak horiek hartuko dira kalifikazio-irizpideen oinarri gisa. Hala, 3.3. taulan agertzen dira jardueretan egindako ariketetan espero diren ikaskuntza-emaizak (IE) eta horietan oinarritutako kalifikazio-irizpideak (KI):

Ikaskuntza-emaizak (IE)	Kalifikazio-irizpideak (KI)
IE01	KI01 Ikasleek bizikidetza armoniatsua/baketsua egon daitezkeen beste bizikidetza motetatik bereizteko gaitasuna dute.
IE02	KI02 Ikasleek gai izan behar dute zenbait hezitzailek (esaterako, Jares 2005) aipatzen dituzten balio eta eduki eta oztopoetatik gutxienez erdia azaltzeko.
IE03	KI03 Ikasleek gai izan behar dute argudiatzeko nola oztopatzen duten bizikidetza egungo hezkuntza-sistemaren balioek, hezteko moduak, ebaluaketa sistemak, ikasleen pertzepzioak eta eskola-egiturak.
IE04	KI04 Ikasleek jakin behar dute bakerako hezkuntza zer den eta bereizi beharko dute beste hezkuntza mota batzuetatik. Halaber, bakerako hezkuntzak bizikidetza sustatzeko garaian izan dezakeen rola argudiatzeko gai izan beharko dute.
IE05	KI05 Hiru bortizkeria mota nagusiak ezagutu eta bake positiboaren eta negatiboaren artean bereizteko gai izan behar dute. Halaber gatazkaren ikusmolde tradizionalaren eta positiboaren artean bereizteko gai izan behar dira.
IE06	KI06 Ikasleek jakin behar dute zer den bakerako hezkuntzak bilatu behar duena eta hori lortzeko erabili ohi diren 12 hezkuntza-lerroen nondik norako nagusiak deskribatzeko gai izan behar dute.
IE07	KI07 Gutxienez BH prozesuan parte har dezaketen lau agente deskribatzeko gai izan behar dute.
IE08	KI08 ikasleek BHko eskola-egiturak izan behar dituen ezaugarrien erdia gutxienez azaltzeko gai izan behar dute.

IE09	KI09 ikasleek BHn erabiltzen diren jarduera-moten erdia gutxienez azaltzeko gai izan behar dute.
IE10	KI10 BHrekin zerikusia duen dokumentazio-iturriak erabiltzeko gai izan behar dute.
IE11	KI11 BHrekin zerikusia duen informazioa ulertu eta maneiatzeko gai izan behar dute.
IE12	KI12 BHri buruzko txosten teknikoak lantzea eta ahoz zein idatziz aurkezteko gaitasuna izan behar dute.
IE13	KI13 Ahoz zein idatziz komunikatzeko gai izan behar dute.
IE14	KI14 Taldean lan egiteko gaitasuna izan behar dute.

3.3. Taula. Ariketetan espero diren ikaskuntza-emaizak eta horietan oinarritutako kalifikazio-irizpideak.

3.3.1.2. PAPER-ZORROAN JASOKO DIREN ARIKETAK KALIFIKATZEKO ERRUBRIKAK

Aurreko atalean Kalifikazio Irizpideetan oinarrituz, ariketa bakoitza kalifikatzeko errubrika bana prestatu dugu. Ondorengo ataletan errubrika horiek agertzen dira.

3.3.1.2.1. LEHEN EBALUAZIO ARIKETA: AKROSTIKOA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK ETA ERRUBRIKA

Lehen ariketa kalifikatzeko, KI01 eta KI02 irizpideetan oinarrituko gara. Hain zuzen ere, akrostikoa eta haren argudiatzea ebaluatzeko, 3.4. taulan jasotzen den errubrikari jarraituko diogu. Kontuan izanik taldea osatzen duten hiru ikasleek egingo dutela akrostikoaren aurkezpena eta hirurek ere erantzungo dietela galderei, irakasleak jakin ahal izango du ea ikasle bakoitzak garatu dituen ariketa honetan garatu beharreko ezagutzak eta gaitasunak. Gogoan izan ariketarekin lor daitekeen puntuaziorik altuena 0,2 puntukoa dela.

Ebaluatuko den alderdia	Ondo	Nahiko ondo	Ez ondo
Edukia	Akrostikoan jasotako hitzek bizikidetzaren oinarrian dauden balioak eta edukiak islatzen dituzte eta hura zer den jakiteko baliagarri izan daitezke (0,05 puntu).	Akrostikoan jasotako hitzek bizikidetzaren oinarrian dauden balio eta edukien erdia islatzen dute eta hura zer den jakiteko nahiko baliagarri izan daitezke (0,02 puntu).	Akrostikoan jasotako hitzek ez dute jasotzen bizikidetzaren oinarrian dauden balio eta edukien erdia, eta ez dute balio hura zer den jakiteko (0 puntu).
Aurkezpena	Akrostikoaren aurkezpena egokia da, hau da, txukuna (0,02).	Akrostikoaren aurkezpena nahiko egokia da, hau da, nahiko txukuna da (0,01 puntu).	Akrostikoaren aurkezpena ez da egokia, hau da, narrasa da (0 puntu).
Argudiatzea	Ondo argudiatuta dago zergatik oinarritu behar duen bizikidetzak akrostikoan jasotako balio eta edukietan (0,13 puntu).	Nahiko ondo argudiatuta dago zergatik oinarritu behar duen bizikidetzak akrostikoan jasotako balio eta edukietan (0,07 puntu).	Ez dago ondo argudiatuta zergatik oinarritu behar duen bizikidetzak akrostikoan jasotako balio eta edukietan (0 puntu).

3.4. Taula. 1. ebaluazio-ariketari dagokion errubrika.

3.3.1.2.2. JARESEK BIDEOAN ESANDAKOAREN LABURPENA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK ETA ERRUBRIKA

Bigarren ebaluazio-ariketa kalifikatzeko, KI02 irizpidean oinarrituko gara. Irizpide hori aintzat hartuz, Jaresek bideoan bizikidetzarako hezkuntzaren balio edo/eta eduki pedagogikoez eta bizikidetza oztopatzen duten aldagaiez esandakoaren laburpena ebaluatzeko, 3.5. taulan jasotzen diren irizpideei jarraituko diegu. Gogoan izan ariketarekin lor daitekeen puntuaziorik altuena 0,2 puntukoa dela.

Ebaluatuko den alderdia	Ondo	Nahiko ondo	Ez ondo
Edukia	Laburpenean Jaresek bideoan aipatutako bizikidetzarako hezkuntzaren balio edo/eta eduki pedagogiko eta bizikidetza oztopatzen duten aldagaiak jasotzen dira (0,15 puntu).	Laburpenean Jaresek bideoan aipatutako bizikidetzarako hezkuntzaren balio edo/eta eduki pedagogiko eta bizikidetza oztopatzen duten aldagaien erdia jasotzen da (0,08 puntu).	Laburpenean Jaresek bideoan aipatutako bizikidetzarako hezkuntzaren balio edo/eta eduki pedagogiko eta bizikidetza oztopatzen duten aldagaien erdia baino gutxiago jasotzen da; laburpena beste ikasle bati kopiatuta dago; Jaresek hitzez hitz esandakoa kopiatu da, besterik gabe (0 puntu).
Aurkezpena	Bideoaren laburpenaren aurkezpena egokia da, hau da, txukuna da eta ondo antolatua (0,02).	Laburpenaren aurkezpena nahiko egokia da, hau da, nahiko txukuna da eta nahiko ondo antolatuta dago (0,01 puntu).	Laburpenaren aurkezpena ez da egokia, hau da, narrasa da eta ez dago ondo antolatuta (0 puntu).
Ortografia	Ez dago ortografia-akatsik (0,03 puntu).	Hiru ortografia-akats edo gutxiago agertzen dira (0,02 puntu).	Hiru ortografia-akats baino gehiago daude (0 puntu).

3.5. Taula. 2. ebaluazio-ariketari dagokion errubrika.

3.3.1.2.3. HIRUGARREN EBALUAZIO-ARIKETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK ETA ERRUBRIKA: BIZIKIDETZA OZTOPATZEN DUTEN EGUNGO HEZKUNTZA SISTEMAREN ALDERDIAK

Hirugarren ariketa kalifikatzeko, KI03 irizpidean oinarrituko gara. Hala, txostena kalifikatzeko 3.6. taulan agertzen den errubrika erabiliko dugu. Gogoan izan ariketarekin lor daitekeen puntuaziorik altuena 0,4 puntukoa dela.

Ebaluatuko den alderdia	Ondo	Nahiko ondo	Ez ondo
Edukia	<p>Bizikidetza oztopatzen duten egungo hezkuntza-sistemaren alderdiei buruzko materialean agertzen diren ideia guztiak argi, landuta eta ondo antolatuta agertzen dira (0,15 puntu).</p> <p>Gaiaren inguruko hausnarketa eta ekarpen interesgarriak egiten dira (0,15 puntu).</p>	<p>Bizikidetza oztopatzen duten egungo hezkuntza-sistemaren alderdiei buruzko materialean agertzen diren ideien erdia argi, landuta eta ondo antolatuta agertzen da (0,07 puntu).</p> <p>Gaiaren inguruko hausnarketa eta ekarpen interesgarri bat egiten da (0,7 puntu).</p>	<p>Ez dira ondo agertzen bizikidetza oztopatzen duten egungo hezkuntza-sistemaren alderdiei buruzko materialean agertzen diren ideiak; Bizikidetza oztopatzen duten egungo hezkuntza-sistemaren alderdiei buruzko materialean agertzen diren ideien erdia baino gutxiago agertzen dira landuta eta ondo antolatuta; materialak dioena hitzez hitz kopiatu da, inongo lanketarik egin gabe (0 puntu).</p>
Aurkezpena	Txostenaren aurkezpena egokia da, hau da, txukuna eta ondo antolatua (0,05).	Txostenaren aurkezpena nahiko egokia da, hau da, nahiko txukuna da eta ondo antolatuta dago (0,02 puntu).	Txostenaren aurkezpena ez da egokia, hau da, narrasa da edo/eta ez dago ondo antolatuta (0).
Ortografia	Ez dago ortografia-akatsik (0,05 puntu).	Hiru ortografia-akats edo gutxiago agertzen dira (0,03).	Hiru ortografia-akats baino gehiago daude (0 puntu).

3.6. Taula. 3. ebaluazio-ariketari dagokion errubrika.

3.3.1.2.4. LAUGARREN EBALUAZIO-ARIKETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK ETA ERRUBRIKA: BAKERAKO HEZKUNTZAREN KONTZEPTUZKO OINARRIAK

Laugarren ariketa kalifikatzeko, KI04 eta KI05 irizpideetan oinarrituko gara. Hala, Bakerako Hezkuntzaren kontzeptuzko oinarrien inguruan taldean landutako materiala kalifikatzeko 3.7. taulan jasotzen den errubrikari jarraituko diogu. Txostena egiten ari direnean, ikaslea taldez talde ibiliko da ikasleei gaiaren inguruko galderak egiten, ariketarekin garatu beharreko ezagutzak eta gaitasunak garatu dituzten egiaztatzeko. Gogoan izan ariketarekin lor daitekeen puntuaziorik altuena 0,4 puntukoa dela.

Ebaluatuko den alderdia	Ondo	Nahiko ondo	Ez ondo
Edukia	<p>a) Materialak argi, landuta eta ondo antolatuta jasotzen ditu irakasleak bake positiboaz eta gatazkaren ikusmolde positiboaz azaldutako ideiak (0,2 puntu)</p> <p>b) Egokiak dira proposatutako ariketak (0,1 puntu).</p>	<p>a) Materialak argi eta ondo antolatuta jasotzen du irakasleak bake positiboaz eta gatazkaren ikusmolde positiboaz azaldutako ideien erdia (0,1 puntu)</p> <p>b) Egokia da proposatutako ariketen erdia (0,05)).</p>	<p>a) Materialak ez ditu argi eta ondo antolatuta jasotzen irakasleak bake positiboaz eta gatazkaren ikusmolde positiboaz azaldutako ideiak (0 puntu).</p> <p>b) Materialak argi eta ondo antolatuta jasotzen du irakasleak bake positiboaz eta gatazkaren ikusmolde positiboaz azaldutako ideien erdia baino gutxiago; beste talde batek egindako lana errepikatu da, besterik gabe; irakasleak esandakoa hitzez hitz kopiatu da,</p>

			besterik gabe (0 puntu). c) Ez dira egokiak proposatutako ariketak; nonbaitetik kopiatu dira ariketak (0 puntu).
Aurkez-pena	Txostenaren aurkezpena egokia da, hau da, txukuna eta ondo antolatua (0,05).	Txostenaren aurkezpena nahiko egokia da, hau da, nahiko txukuna da eta ondo antolatuta dago (0,02 puntu).	Txostenaren aurkezpena ez da egokia, hau da, narrasa da edo/eta ez dago ondo antolatuta (0 puntu).
Ortografia	Ez dago ortografia-akatsik (0,05 puntu).	Hiru ortografia-akats edo gutxiago agertzen dira (0,03 puntu).	Hiru ortografia-akats baino gehiago daude (0 puntu).

3.7. Taula. 4. ebaluazio-ariketari dagokion errubrika.

3.3.1.2.5. BAKERAKO HEZKUNTZAREN HELBURU, BALIO ETA EDUKI, HEZKUNTZA-LERRO ETA AGENTEEI BURUZKO EBALUAZIO-ARIKETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK ETA ERRUBRIKA

Bosgarren ariketa kalifikatzeko, KI06 eta KI07 irizpideetan oinarrituko gara. Irizpide horiek aintzat hartuz, Bakerako Hezkuntzaren helburuak, balioak, edukiak, hezkuntza-lerroak eta agenteak deskribatzea helburu duen ebaluazio-ariketa kalifikatzeko 3.8. taulan jasotzen den errubrikari jarraituko diogu. Taldeak txostenak lantzen ari diren bitartean, irakaslea joango zaie taldekideei galderak egitera, ariketarekin garatu beharreko ezagutzak eta gaitasunak garatu dituzten ziurtatzeko. Gogoan izan ariketarekin lor daitekeen puntuaziorik altuena 0,5 puntukoa dela.

Ebaluatuko den alderdia	Ondo	Nahiko ondo	Ez ondo
Edukia	Argi azalduta, landuta eta ondo antolatuta daude Bakerako Hezkuntzaren helburuak, balioak,	Argi azalduta eta ondo antolatuta dago Bakerako Hezkuntzaren helburuak, balioak,	Ez daude argi azalduta ez eta ondo antolatuta Bakerako Hezkuntzaren

	edukiak, hezkuntza-lerroak eta agenteak aztertzen dituen materialean agertzen diren ideia guztiak eta horien inguruko hausnarketa (0,3 puntu).	edukiak, hezkuntza-lerroak eta agenteak aztertzen dituen materialean agertzen diren ideien erdia eta horien inguruko hausnarketa (0,15 puntu).	helburuak, balioak, edukiak, hezkuntza-lerroak eta agenteak aztertzen dituen materialean agertzen diren ideiak eta horien inguruko hausnarketa; lanak materialean agertzen diren ideien erdia baino gutxiago jasotzen du; lanak dioena nonbaitetik kopiatuta dago, besterik gabe (0 puntu).
Bibliografia	Ideiak eta argudiatzeak defenditzeko informazio iturriak kontsultatu, aipatu eta, ondoren, horiek erreferentzia bibliografikoetan jaso dituzte (0,1).	Zenbaitetan, ideiak eta argudiatzeak defenditzeko informazio iturriak kontsultatu, aipatu eta, ondoren, horiek erreferentzia bibliografikoetan jaso dituzte (0,05).	Ez dute informazio iturririk aipatu eta ez dute bibliografiarik txertatu; ez da txertatu kopiatu den materialaren erreferentziarik (0 puntu).
Aurkezpena	Txostenaren aurkezpena egokia da, hau da, txukuna eta ondo antolatua (0,05).	Txostenaren aurkezpena nahiko egokia da, hau da, nahiko txukuna da eta ondo antolatuta dago (0,02 puntu).	Txostenaren aurkezpena ez da egokia, hau da, narrasa da edo/eta ez dago ondo antolatuta (0 puntu).
Ortografia	Ez dago ortografia-akatsik (0,05 puntu).	Hiru ortografia-akats edo gutxiago agertzen dira (0,02 puntu).	Hiru ortografia-akats baino gehiago daude (0 puntu) .

3.8. Taula. 5. ebaluazio-ariketari dagokion errubrika.

3.3.1.2.6. BAKERAKO HEZKUNTZAN ESKOLA EGITURA NOLAKOA IZAN BEHAR DUEN AZTERTZEA HELBURU DUEN ARIKETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK ETA ERRUBRIKA

Seigarren ariketa kalifikatzeko, 3.1.2.1.2. atalean aipatutako KI08 irizpidean oinarrituko gara. Hain zuzen ere, 3.9. taulan jasotzen diren irizpideei jarraituko diegu. Gogoan izan ariketarekin lor daitekeen puntuaziorik altuena 0,2 puntukoa dela.

Ebaluatuko den alderdia	Ondo	Nahiko ondo	Ez ondo
Edukia	Argi azalduta, landuta eta ondo antolatuta daude Bakerako Hezkuntzan eskola-egiturak izan beharreko ezaugarri guztiak (0,1 puntu).	Argi azalduta, landuta eta ondo antolatuta daude Bakerako Hezkuntzan eskola-egiturak izan beharreko ezaugarrien erdia (0,05 puntu).	Ez daude argi azalduta ez eta ondo antolatuta Bakerako Hezkuntzan eskola-egiturak izan beharreko ezaugarrien erdia; lanak eskolan azaldu diren ideien erdia baino gutxiago jasotzen du; lanak dioena nonbaitetik/norbaiti kopiatuta dago, besterik gabe (0 puntu).
Aurkezpena	Txostenaren aurkezpena egokia da, hau da, txukuna eta ondo antolatua (0,05).	Txostenaren aurkezpena nahiko egokia da, hau da, nahiko txukuna da eta ondo antolatuta dago (0,02 puntu).	Txostenaren aurkezpena ez da egokia, hau da, narrasa da edo/eta ez dago ondo antolatuta (0 puntu).
Ortografia	Ez dago ortografia-akatsik (0,05 puntu).	Hiru ortografia-akats edo gutxiago agertzen dira (0,02 puntu).	Hiru ortografia-akats baino gehiago daude (0 puntu) .

3.9. Taula. 6. ebaluazio-ariketari dagokion errubrika.

3.3.1.2.7. ZAZPIGARREN EBALUAZIO-ARIKETA KALIFIKATZEKO
IRIZPIDEAK ETA ERRUBRIKA: BAKERAKO HEZKUNTZA
PROZESUA APLIKATZEKO MODUA

Zazpigarren ariketa kalifikatzeko ere, 3.1.2.1.2. atalean aipatutako KI09 irizpideetan oinarrituko gara. Hain zuzen ere, 3.10. taulan jasotzen diren irizpideei jarraituko diegu. Gogoan izan ariketarekin lor daitekeen puntuaziorik altuena 0,4 puntukoa dela.

Ebaluatuko den alderdia	Ondo	Nahiko ondo	Ez ondo
Edukia	Klasean banatutako materialean agertzen diren ideia guztiak argi, landuta eta ondo antolatuta jasotzen dira (0,3 puntu).	Klasean banatutako materialean agertzen diren ideien erdia argi, landuta eta ondo antolatuta jasotzen da (0,15 puntu).	Ez dira ondo jasotzen klasean banatutako materialean agertzen diren ideiak; materialean agertzen diren ideien erdia baino gutxiago agertzen dira landuta eta ondo antolatuta; materialak dioena hitzez hitz kopiatu da, inongo lanketarik egin gabe (0 puntu).
Aurkezpena	Txostenaren aurkezpena egokia da, hau da, txukuna eta ondo antolatua (0,05).	Txostenaren aurkezpena nahiko egokia da, hau da, nahiko txukuna da eta ondo antolatuta dago (0,02 puntu).	Txostenaren aurkezpena ez da egokia, hau da, narrasa da edo/eta ez dago ondo antolatuta (0 puntu).
Ortografia	Ez dago ortografia-akatsik (0,05 puntu).	Hiru ortografia-akats edo gutxiago agertzen dira (0,03 puntu).	Hiru ortografia-akats baino gehiago daude (0 puntu) .

3.10. Taula. 7. ebaluazio-ariketari dagokion errubrika.

3.3.1.2.8. TXOSTEN TEKNIKOA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK ETA ERRUBRIKA

Zortzigarren ariketa kalifikatzeko, 3.1.2.1.2. atalean aipatutako irizpide guztietan oinarrituko gara. Hala, Bakerako Hezkuntzari buruzko txosten orokorraren aurkezpena kalifikatzeko, 3.11. taulan jasotzen diren irizpideei jarraituko diegu. Taldeak txostenak lantzen ari diren bitartean, irakaslea joango zaie taldekideei galderak egitera ariketarekin garatu beharreko ezagutzak eta gaitasunak garatu dituzten ziurtatzeko. Gogoan izan ariketarekin lor daitekeen puntuaziorik altuena 1 puntukoa dela.

Ebaluatuko den alderdia	Ondo	Nahiko ondo	Ez ondo
Edukia	Argi azalduta, landuta eta ondo antolatuta daude Bakerako Hezkuntzaren nondik norakoei buruzko ideia guztiak (0,3 puntu).	Argi azalduta, landuta eta ondo antolatuta daude Bakerako Hezkuntzaren nondik norakoei buruzko ideien erdia (0,15 puntu).	Argi azalduta, landuta eta ondo antolatuta daude Bakerako Hezkuntzaren nondik norakoei buruzko ideien erdia baino gutxiago; Ez daude argi azalduta, landuta ez eta ondo antolatuta Bakerako Hezkuntzaren nondik norakoei buruzko materialean agertzen diren ideiak; materialean jasotzen dena nonbaitetik kopiatuta dago hitzez hitz (0 puntu).
Beste gaiekiko lotura	Gaiak ikasgaiari jorratu ez diren beste gai batzuekiko dituen loturak aztertu dituzte (0,1).	Batzuetan gaiak ikasgaiari jorratu ez diren beste gai batzuekiko dituen loturak aztertu dituzte (0,05).	Ez dituzten aztertu gaiak ikasgaiari jorratu ez diren beste gai batzuekiko dituen loturak (0 puntu).
Ondorioak	Txostenaren amaieran, jorratutako gaiaren	Txostenaren amaieran,	Txostenaren amaieran, ez da

	inguruko hausnarketa eta ondorio landuak jasotzen dira (0,35).	jorratutako gaiaren inguruko hausnarketa eta ondorio ez oso landuak jasotzen dira (0,18).	jasotzen jorratutako gaiaren inguruko hausnarketa eta ondorio (0 puntu).
Bibliografia	Ideiak eta argudiatzeak defenditzeko informazio iturriak aipatu eta, ondoren, horiek erreferentzia bibliografikoetan jaso dituzte (0,2).	Zenbaitetan, ideiak eta argudiatzeak defenditzeko informazio iturriak aipatu eta, ondoren, horiek erreferentzia bibliografikoetan jaso dituzte (0,1).	Ez dute informazio iturririk aipatu eta ez dute bibliografiarik txertatu (0 puntu).
Aurkezpena	Txostenaren aurkezpena egokia da, hau da, txukuna eta ondo antolatua (0,02).	Txostenaren aurkezpena nahiko egokia da, hau da, nahiko txukuna da eta ondo antolatuta dago (0,01 puntu).	Txostenaren aurkezpena ez da egokia, hau da, narrasa da edo/eta ez dago ondo antolatuta (0 puntu).
Ortografia	Ez dago ortografia-akatsik (0,03 puntu).	Hiru ortografia-akats edo gutxiago agertzen dira (0,02 puntu).	Hiru ortografia-akats baino gehiago daude (0 puntu) .

3.11. Taula. 8. ebaluazio-ariketari dagokion errubrika.

3.3.1.2.9. EUSKARRI AUDIOBISUALA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK ETA ERRUBRIKA

Bederatzigarren ariketa kalifikatzeko 3.1.2.1.2. atalean aipatutako irizpide guztietan oinarrituko gara.. Irizpide horietatik abiatuz, Bakerako Hezkuntzari buruzko aurkezpen publikoan erabiliko den euskarri audibisuala ebaluatzeko 3.12. taulan jasotzen den errubrikari jarraituko diogu. Taldeak euskarri audibisuala lantzen ari diren bitartean, irakaslea joango zaie taldekideei galderak egitera, ariketarekin garatu beharreko ezagutzak eta gaitasunak garatu dituzten ziurtatzeko. Gogoan izan ariketarekin lor daitekeen puntuaziorik altuena 0,4 puntukoa dela.

Ebaluatuko den alderdia	Ondo	Nahiko ondo	Ez ondo
Edukia	Euskarri audiobisualean argi islatzen dira hitzaldian jorratzen diren edukiak (0,2 puntu).	Euskarri audiobisualean argi islatzen da hitzaldian jorratzen diren edukien erdia (0,1 puntu).	Euskarri audiobisualean ez dira argi islatzen hitzaldian jorratzen diren edukiak; euskarriak hitzaldian jorratzen diren gaien erdia baino gutxiago jasotzen ditu (0 puntu).
Egokitasuna	Euskarria egokia da aztertzen den gaia aurkezteko; ondo antolatuta dago hizketa-gaiaren arabera eta lagungarria da aurkezpenari jarraitzeko (0,15).	Euskarria nahiko egokia da aztertzen den gaia aurkezteko; nahiko ondo antolatuta dago hizketa-gaiaren arabera eta nahiko lagungarria da aurkezpenari jarraitzeko (0,07).	Euskarria ez da egokia aztertzen den gaia aurkezteko; ez dago ondo antolatuta eta batzuetan ez dator bat ikusten dena esaten denarekin. Ez da oso lagungarria aurkezpenari jarraitzeko (0).
Sortzailetasuna	Euskarria originala da eta ikus-entzuleengan arreta mantentzea lortzen du (0,05).	Euskarria nahiko originala da eta ikus-entzuleengan arreta mantentzea lortzen du (0,02).	Euskarria ez da originala da eta ez du lortzen ikus-entzuleengan arreta mantentzea (0 puntu).

3.12. Taula. 9. ebaluazio-ariketari dagokion errubrika.

3.3.1.2.10. AURKEZPEN PUBLIKOA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK ETA ERRUBRIKA

Azken ariketa kalifikatzeko, 3.3.1.2. atalean aipatutako irizpide guztietan oinarrituko gara. Hala, Bakerako Hezkuntzari buruzko aurkezpen publikoa ebaluatzeko, irakasleak eta ikaskideek 3.13. taulan jasotzen diren kalifikazio-irizpideei jarraituko diete. Ikus-entzule bakoitzak taulan agertzen diren irizpideak jasoko dituen fitxa izango du taldeen aurkezpenak ebaluatzeko. Ikasleen ebaluaketen batez bestekoa, talde bakoitzak ariketa honetan lortuko duen notaren eren bat izango da (0,34 puntu). Beste bi erenak (0,66), irakasleak egindako ebaluaketatik eratorriko dira. Izan ere, irakasleak taldekide bakoitzari galderak egingo dizkio ikasgaiari garatu beharreko ezagutzak eta gaitasunak

garatu dituen egiaztatzeko. Gogoan izan ariketarekin lor daitekeen puntuaziorik altuena 1 puntukoa dela.

Ebaluatuko den alderdia	Ondo	Nahiko ondo	Ez ondo
Edukia	Edukien aurkezpena ondo antolatuta dago eta argi azaltzen da esleitutako gaiari buruz jasotako informazio guztia (0,25 puntu). Taldeak adibide, ekarpen edo/eta hausnarketa aberasgarriak egin ditu (0.25)	Ondo antolatuta dago aurkezpena eta ongi azaltzen da esleitutako gaiari buruzko informazioaren erdia (0,12 puntu). Taldeak adibide, ekarpen edo/eta hausnarketa aberasgarriren bat egin du (0.12)	Ez dago argi azalduta ez eta ondo antolatuta txosten gaiari buruzko informazio nagusia; landutako edukien erdia baino gutxiago jasotzen du aurkezpenak (0 puntu). Ez da adibide, ekarpen edo/eta hausnarketarik egin (0 puntu).
Aurkezpena	Aurkezpena egokia da, hau da, nabaritzen da aldez aurretik prestatuta dagoela eta entretenigarria da (0,2).	Aurkezpena nahiko egokia da, baina agian aldez aurretik gehiago prestatu beharko litzateke (0,1).	Aurkezpena ez da egokia da, hau da, nabaritzen da ez dela aldez aurretik prestatu (0 puntu).
Ikus-entzuleei emandako erantzunak	Taldekideek segurtasunez, giza legez eta ondo argudiatuz erantzun diete ikus-entzuleen galderei (0,3).	Taldekideek seguru, giza legez eta ondo argudiatuz erantzun diete ikus-entzuleen galderen erdiari (0,15).	Taldekideek ez diete ondo erantzun ikus-entzuleen galdera gehienei (0).

3.13. Taula. 10. ebaluazio-ariketari dagokion errubrika.

3.3.2. BEHAKETA

Kontuan izanik AOIn ezinbestekoa dela taldekide guztien parte hartzea, kalifikazioan kontuan izan beharreko elementua dela uste dugu. Parte hartzea behaketaren bitartez neurtuko da. Hain zuzen ere, irakasleak gela giroan egindako behaketaren bitartez. Parte hartzea hiru motakoa izan daiteke: parte-hartze txikia (hau da, eztabaidetan/hausnarketetan/lanetan ez du apenas ekarpenik egin); parte-hartze ertaina (hau da, eztabaidetan/hausnarketetan/lanetan ekarpenak egiten ditu, baina gehiegi inplikatu gabe) eta parte hartze handia (eztabaidetan/hausnarketetan/lanetan ekarpen handiak egiten ditu. Izan ere, eginbeharra dinamizatzen duen pertsonetako bat da). Ikasleek duten parte hartzearen arabera, honako puntuazio hau lortu ahal izango dute: parte-hartze txikia (0); parte-hartze ertaina (0,15) eta parte hartze handia (0,3).